

## Hernanik eta Goizuetak txotx eginaz hasi zuten aurtengo sagardo tenporada

■ Aimar Olaizola pelotari goizuetarrak egin zuen ohorezko txotxa Gudarien plazan ■ Txotx garaia hasien zela aitzakiatzat hartuaz Goizuetako herriari omenaldia egin zion Hernanikoak.

TXOTX egin eta "hau da Hernaniko sagardo berria" esanaz eman zion hasiera ofiziala Aimar Olaizola pelotari goizuetarrak aurtengo txotx denboraldiari. Hernanin lehenengo aldiz egin zen atzo txotx denboraldiaren hasiera ofiziala eta ikusmin handia sortu zuen. Gudarien Plazan jendea erruz bildu zen festa ikusi eta lehenengo sagardoa probatzera.

### Goizuetari omenaldia

Atzoko ekitaldian, Goizuetako herriari omenaldia egin zitzaion Gudarien Plazan bertan. Mertxe Etxeberria alkateak esan zuen goizuetarrek joera handia dutela Hernanira eta "erdi Hernaniarrak" ere badirela. Herritarren izenean oroigarri bat eman zion Etxeberriak Goizuetako alkateari eta baita Goizuetakoak Hernanikoari ere. Maria Pilar Untxalo Goizuetako alkateak esan zuen Hernaniko herriak beti lagundu izan diola Goizuetari, orain 100 urte bidea egin edo kartak herrira iritsi



Olaizola sagardoa hartzen eta Altzuetako Juan Goikoetxea kupela irekitzen, atzo Gudarien plazan.

arazten adibidez, eta asko eskertzen zutela txotx hasierako ekitaldian ere Goizuetako herriaz gogoratu izana.

Gudarien plazako ekitaldia txalapartari eta bertsolariek alaitu zuten eta pintxoak eta sagardoa izan ziren inguratu

zen jendearentzat. Gero, bazkaria Elorrabi sagardotegian egin zuten goizuetarrek eta hernaniarrek, denek batean. □

## 'Euskal Herriak bere Eskola' ekimenaren aurkezpena bihar

EUSKAL Herriak Bere Eskola ekimena asteartean aukeztuko dute Hernanin, Udaletxeko areto nagusian, 19:30etan. Euskal Herriak eskola propioa izatea eskatzen du ekimenak eta hilaren 25ean mintegiak antolatu dituzte Zarautzen. Ekimeneko arduradunek Hernaniarrei dei egin die mintegietara apuntatzeko (696 200570 telefonoan edo ehbe@euskalherria.org helbide elektronikoan). □

### ■ ERRUGBIA

## Atletikok 10-Hernanik 21

EZ partidu ona eginda, baina, garaipen garrantzitsua ekarri zuen atzo Hernanik Aietetik. Zelaia ere ez zegoen punta puntakoa eta kosta egin zitzairen hernaniarrei lekua hartzea. Azkenean atakean oinarritu zuten jokua eta 10-21 irabazi zioten Atletiko SSri. Datorren astean deskantsua du Hernani eta hemendik bira Santander liderraren kontra neurtuko da. □

### ■ WATERPOLOA

## Bi taldeek enpate

NESKEN taldeak 11-11 berdindu zuen larunbatean Santurtzin, eta oso gustora bueltatu ziren. Hernaniarrek mantxo jokatuta partiduari eusten jakin zuten. Mutilen lehen taldeak ere 4-4 berdindu zuen atzo Bilbaoren kontra. Hernaniarrek beherako play offak ari dira jokatzeko eta atzo nabaritu ziren nerbioak. □

## Kaxkok bilera du etzi


KAXKO alde zaharreko auzo elkarrekin bilera egingo du asteazkenean, 20:00etan, Biterin. Andre Kaleko inaugurazioaren balorazioa, aurtun 2 kaleak festa elkarrekin egiteko proposamena eta alde zaharreko obren 3garren faseari buruz hitz egingo dute, besteak beste. □

## Oscar Matute Ezker Batua-IUko parlamentariak hitzaldia emango du datorren asteazkenean Biterin

OSCAR Matute Ezker Batua-IUko parlamentariak hitzaldia emango du datorren asteazkenean, hilak 22, Hernanin. Ezker Batuak zenbait gairen inguruan zein iritzi duen azalduko du Matutek: Ibarretxeren plana, Batasunaren ilegaltzazioa, pazifikazioa, hautes-

kunde munizipalak, Abiadura Haundiko Trena, etxebizitza, Iraken kontrako gerra mehatxua eta abar.

Hitzaldia Hernaniko Ezker Batuak antolatu du eta dei egin die herritar guztiei azaltzeko. Datorren asteazkenean, 19:30etan Biterin. □



Oscar Matute. (Argazkia: Iñigo Azkona -Argia)

Argitarapen honen laguntzaile:

**CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA**

Hernaniko Kronikako laguntzaile:

**ORAUÑE PROMOZIOAK**

mikel armendariz  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA  
Eguneroko ogia beti  
Bikain...

Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89  
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42  
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87  
20120 HERNANI



Haritza aldatzen atzo hilerrri aurreko plazoletan. Atzean, fusilatuen senitartekoak.

## Hilerrri atarian haritza aldatu zuten Gerra Zibilean fusilatutakoen senideek

■ Iñaki Egaña historialariak esan zuen 20 direla afusilatu zituzten hernaniarrak, eta Hernanin afusilatu eta lurperatuak, berriz, 200dik gora.

GERNIKA Deialdiak antolatuta Gerra Zibilean fusilatutakoen aldeko omenaldia egin zen atzo Hernaniko hilerrri atarian. Gernika Deialdiko arduradunek eta fusilatutakoen senideek aldatu zuten haritza jendearen txalo artean. Ekitaldian, Iñaki Egaña historialariak esan zuen Gerra Zibilak 5.500 fusilatu utzi zituela hego Euskal Herrian: 3.000tik gora Nafarroan, 1.100 Gipuzkoan, 1.000 Bizkaian eta 370 Araban. Fusi-

latutako hernaniarrak, berriz, 20 izan zirela esan zuen. Hernanin, 212 gorputz omen daude 2 fosatan lurperatuta: batean 197 eta bestean 15. fusilatu Galarretan, Illa-rreta baserrian eta kanposantuan bertan fusilatzen omen zituzten. Egañak esan zuen memoria ez dela galduko, eta gurasoak edo aiton amonak zein genituen eta zein amets zituzten badakitela eta haien bidea segi besterik ez dutela egin.

“Biktima izaten ez digute utzi” Senitartekoen izenean Tomasi Redondo ordiziarrak hartu zuen hitza eta bere egoera azaldu zuen: gerra garaian aita eta 2 anaia fusilatu omen zizkioten. Urte asko pasa omen dituzte ahorik ireki ezinda, eta Franquismo garai-ko biktima direla errekonozitu gabe. Redondok esan zuen espero zuela horrelakorik berriz pasa beharrik ez izatea eta ekitaldi horiek aurrera egin ahal izateko balio izatea. □

## Helduen Hezkuntza Ikastetxean matrikula zabalik

HELDUEN Hezkuntza Ikastetxeak matrikula zabalik du urtarrilaren 31 arte, astelehene ostiralera, 10:00-12:00 eta 17:00-19:00. Eskaintza zabal da: matematika ezagupenak eta matematika hiztegia euskeraz, umeak eskolan dituzten gurasoentzat; euskara klaseak; gatzelania klaseak kan-

potarrentzat; zientziaren inguruko ikastaroa; eta informatika ikastaroa (oinarrikoena, windows, word eta internet).

**Formakuntza orokorra** Formakuntza orokorra ere ematen da helduentzat. Idazten edo irakurtzen ikasi; ezagupenak eguneratu; unibertsitatera sartze-

ko froga prestatu, 25 urtetik gorakoentzat; goi mailako moduluetan sartzeko froga prestatu; irakurketa, idazketa eta kalkulua hobetzeko klaseak; eta bigarren hezkuntzako graduatua lortzeko klaseak.

Izena emateko 943 335318 telefonoan edo ikastetxean bertan: Antziola 62. □

KIROLA			ASTEBURUKO PARTIDUAK		
<b>FUTBOLA</b>			<b>PELOTA</b>		
Gorengoak	Anatasuna-Hernani	0-2	22 urtez azpiko txap. Kiroldegian		
Emakumezko Liga	Atsedena-Bi		Azagaine-Oier Mendizabal/Landa-Jauregi		22-15
Leherjona	Hernani-Iñuri	0-2	Mendizabal/San Sebastian/Vicente Tones		22-14
Gazteen Liga Nazi	Hernani-Hdartsu	1-2	<b>ERREREMONTEA Galarretan</b>		
Gazteen Ohoerzko	Hernani-Kostkas	3-3	Juaristi-Banenetxea II/Lanae-Lander		35-23
Kadeteen Ohoerz	Hondarbi-Hernani	0-6	Zeberdi II/Azpura/Ahuna HEzagaine		24-40
Kadete 2. M. aila	Sto. Tomas-Hernani	1-1	Iñigo A. Lekunberri/M. txiki III/Lizaso		40-23
Haurren Ohoerzko	Hernani-Hernani	0-1	Sarasua A. Azpura II/Aginerrabe-Badib		24-30
<b>ERRUGBIA</b>			<b>Gipuzkoa eta Euskal Herriko txapelketak</b>		
Senior Liga Nazional	At.SnSn-Hernani	10-21	Gipuzkoa Infan	Fernandez de G. M. uñoz/Lizari	18-11
Jubenilak Euskal L	Hernani-Bera Bera	29-12	Euskadikadete	Azpura/G. Iñuri	22-10
Kadeteak Euskal L	Hernani-Bera Bera	99-0	Gipuzkoa Infan	O. Iñuri/Ezeiza-G. Iñuri	18-9
Infantilak	Atletiko-Hernani	5-50	Gipuzkoa Kadete	Ezeiza-G. Iñuri/Bategi/O. Iñuri	22-18
Alebinak	Atletiko-Hernani	30-5	Euskadiko tx	Kuku/Manzisidor-M. Iñuri	17-30
<b>WATERPOLOA</b>			<b>XAKEA</b>		
Euskal Liga, Nes	Askartza-Hernani	11-11	2. Gipuzkoa	Lasalle Iñuri-Hernani A	0,5-3,5
Euskal Liga, Mut	Hernani-Bi	4-4	2. Gipuzkoa	Fortuna B-Hernani B	1-3
Euskal Liga	Santurtzi B-Hernani B	12-3			



Manzisidor eta Martinez Rufinoren ahokua entzuten.

## Manzisidor eta Martinezek erraz irabazi diete Mendizabal munduko txapeliduna eta Zubeldiari

EUSKAL Herriko txapelketako ligilako partidurik zailena erraz irabazi dute Manzisidor eta Martinezek Kuku talde anoetarraren kontra, 17-30. Bikote hernaniarra Maider Mendizabali irabazi ezinda zebilen aspaldian, baina, ostiralean ondo pentsatuta eraman zuten taktika eta baita zuzen asmatu ere. Manzisidor eta

Martinezek atzera jokatu zuten, Mendizabal buruzgain pasa eta Zubeldiak jokatu zezan. Mendizabalek laguntzera atzera egiten zuenean, berriz, aurrean arriskatu zuten Hernaniarrek, eta asmatu. Hau ligilako lehen partidua izan da. Beste hiru jokatu beharko dituzte oraindik bikote hernaniarrak, baina, nahikoa errazak. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak:  
943 550093  
► Udaltzaingoa:  
943 333288  
► DYA:  
943 464622  
► Anbulatorioa:  
943 006666  
► Jokalari anonimoak:  
943 331103

#### ✚ FARMAZIAK

ASTELEHENA	ASTEARTEA
► Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087	► Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
► Gaeuz: Urbistondo Lasarte. San Francisco 1B ☎ 943 366567	► Gaeuz: Iturralde Usurbil. Poligono 13, 9 ☎ 943 363395

### IRAGARKI MERKEAK

Lizeaga kale inguruan GARAJEA erosiko genuke. Deitu: 609 543 900

# LUBER

## BIDEODENDA

Kardaberaz kalea 3, Hernani  
Tfna: 943 33 50 48  
Mobila: 635 71 72 12 (24h)



- Pelikularik berrienak (VHS eta DVD)
- Marrakiz bizidunak, Zinekluba...
- Sandwich hotz eta beroak
- Goxoki eta litxarkeriak

**Aukera bereziak Otsailaren 3 arte**

- 10 Euroko kargarengatik 4 dohan
- 15ekoagatik 7 dohan
- 20koagatik 11 dohan
- 30koagatik 20 dohan

### Ordutegia

Astelehene igandera  
11:30etatik 21:00etara

**Zabaldu berria**